



ARTEA. 1908tik 1959ra bitartean egindako 35 lan erakutsiko ditu; gutxien ezagutzen den garaikoak dira gehienak



ARNOLD NEWMAN



Giorgio de Chirico, Erroman, 1957an. Ondoan, *Politikoaren malenkonioa* (goian), *Barnealde metafisikoa gailatekin* (ezkerrean) eta *Amodio kantua* margoak.

Jon Eskisabel | DONOSTIA

Giorgio de Chiricoren bi aurpegiak

Bilboko BBK Fundazioaren aretoak pintura metafisikoaren sortzailearen erakusketa bat hartuko du bihartik urrira bitartean

Giorgio de Chirico (1888-1978) margolariaren kasua bitxienetakoa da artearen historian. Haren ekoizpen artistikoa, Picassorena bezain emankorra, muga zehatz batek zatiturik dago. 1912tik 1919ra bitartean Europako maisu handienetako bat izan zen, surrealista liluratuko zituen pintura metafisikoaren sorreraren arduraduna. Surrealistak ez ziren De Chiricok margotutako hirietako paisaia oniriko eta estrainioak miretsi zituzten bakarrak, Picasso bezalako pintoreek eta Paul Eluard bezalako poetek ere maisutzat hartu baitzuten XX. mende hasierako Paris hartan.

1919an, berriz, ordura arte egindakoarekin hautsi eta klasi-zismora begira jarri zen pintorea. Bere aurreko lanak baztertu zituen, oso teknika eskasekoak zirela argudiatuz, eta mugimendu neoklasikora lerratu zen. «Modernismoaren mistiko ergelak» kritikatu zituen, eta ordainean Frantziako abangoardiak zokoratu zuen. Ondorioz,

De Chiricoren bigarren garai horretako lana ahanzturan galdu zen hirurogei urtetan.

Bilboko BBK Fundazioak artista italiarraren urrezko garaia eta askoz ezezagunagoa den bestea biltzen dituen erakusketa zabalduko du bihar. Giorgio de Chiricok 1908tik 1959ra bitartean egindako 35 olio eta gouache aukeratu ditu Martine Soria komisario frantziarrak haren ibilbidearen ikuspegi osoa eman nahian. Soriaren iritziz, De Chiricoren ibilbidean aro metafisikoa soilik jo daiteke maisulantzat, baina erakusketa honek aukera emango du haren obra osora hurbiltzeko, eta gu-

txien baloratu den lana ezagutzeko.

Horrela, pintura metafisikoaren garaietatik koadro bakan batzuk baino ez dira izango BBKren erakustaretoan, tartean *Il Vaticinatore*, *Composizioni geometriche paesaggio con fabbrica* eta *Due Manichini*. Gainerakoak, grekolatinoen eragina duten zaldizko paisaiak eta erretratoak dira.

Metafisikaren teorizatzailea

Giorgio de Chirico Volosen (Grezia) jaio zen, aita siziliar eta ama genoarren seme. Aita 1905ean hil ondoren –gertakizun horrek eragin handia izango

du De Chiricoren lanetan–, Atenastik Munichera iritsi zen ama eta anaiarekin, eta arte ikasten hasi zen. Urte haietan Arnold Böcklin suitzarraren obra ezagutzeak arrasto sakona utzi zuen bere sentsibiltate artistikoan. Aldi berean, filosofiarekiko interesa Nietzsche, Schopenhauer eta Weininger irakurritz asetu zuen.

Turinen eta Florentzian izan ondoren, 1911n Parisen finkatu zen. Ordurako jada hasia zen hiri paisaia bakartiak margotzen, *Udazken gau bateko enigma* bezala. Lehen lan metafisiko horietan argien eta itzalen arteko kontrasteak eta perspektiba

handiek angustiazko mundu oniriko mehatxugarri bat irudikatzen dute. Elementu batzuk finokoak dira De Chiricoren garai metafisikoaren paisaietan. Dorreak, estatuak, itzalak, enparantzak, trenbideak, lantegieta-ko tximiniak... De Chirico bizi izandako lekuen isla ziren. Esaterako, TURINGO Mole Antone-lliana dorretzarra koadro askotan agertzen da.

Margolaria ez ezik, pintura metafisikoaren teorizatzailea ere izan zen De Chirico. Bere saiakerak 1920an Carlo Carra margolari futuristarekin sortutako *Pittura Metafisica* aldizkarian argitaratu zituen italiarrak.

1924an Parisera itzuli zenean aitzindari gisa hartu zuten surrealisten, baina geroago baztertu egin zuten 1918az geroztik egindako obra. Valori Plastici talde neoklasikoan babestu zen, eta «pintura handiaren» gaiekin berradiskidetu nahi izan zuen aurrerantzean. Robert Hughes arte kritikariaren iritziz, «saio horren porrotaren neurria lehen urteetan azaldutako talentuarena bezain liluragarria da».